

Trinidad Haitza


Bide bat zabalik oihan itxira

Ramon Olasagasti

Benasquen hasi zen dena, Goimendi Eskolako ikastaro batean. Asier Izagirrek han ezagutu zituen Tato Lopez eta Andi Lamuniere argentinarrek, Barilocheko Unibertsitateko irakasleak eta mendi gidariak. Haiekin solasean; jakina da eskalatzaileek ez dutela pattar askorik behar burua dantzan jartzeko. Cerro Torre, Aconcagua, Fitz Roy... aipatzea aski. «Alabaina, Patagoniara joan eta aurten gertatu dena gertatzerik ez genuen nahi: eguraldi txarra, eta opor eta diru guztiak pikutara!», adierazi digu Asier Izagirrek. Hala, argentinarren aholkuei jarraiki, iparralderago zuzendu zuten mira, Cochamo bailarara, Bariloche (Argentina) eta Puerto Montt (Txile) arteko haran ezezagun batera. Han nonbait, oihanaren erdian, horma eder eta ezezagunak bazirela kontatu zieten, baina zehaztasun gehiagorik ez.

Izagirre, Elola, Ulazia eta Gutierrezek amets urduriz eta zer aurkituko kezka logikoaz hartu zuten Madrildik Santiagora (Txile) bitarteko hegazkina. Abenduaren 7a zen. Hiriburutik autobusbatek eraman zituen Puerto Varasera, eta han beharrezko erosketak guztiak egin zituzten, Cochamora baino lehen. Cochamo herrian, Txile eta Argentina arteko estraperloan zaildutako gizonezko apal bat joan zitzaien abegi egitera. Cosme Rojas zen, euren kontaktua. «Esan ziguten Cochamoko hormetara inguratu ziren talde apurrak (brasil-darren bat eta, nola ez, ingelesak) hark eraman zituela oihanean barna. Cosmek, ordea, apenas zekien ezer horiei buruz, bazeudela bai, baina zenbat neurtzen zuten eta non zeunden ez zekien».

Asier Izagirre eta Juanjo Elola tolosarrek, Josu Gutierrez usurbildarrek eta Josu Ulazia mutrikuarrek bide bat zabaldu berri dute Cochamo bailarako (Txile) Trinidad Haitzean: 'Dispersiorik ez'. Patagoniako magnetismoari itzuri egin, eta iparralderago jo zuen laukoteak. Han baretzen dira nonbait Patagoniako ekaitzak.



Asier Izagirre

Mandoak eta matxetea hartu eta oihan itxian sartu ziren. Sei bat orduko bidea egin ondoren Trinidad Haitza agertu zitzaizkion, iraulka egin zien bihotzak. Hormapera iritsi eta artesi logikoenak aztertzen hasi ziren, baina denetan aurreko bideren baten arrastoak aurkitu zituzten: iltzeren bat, paraboltak... «Lerro politenak zabalduta daude. Gu, beste leerro batean sartu ginen, eta hura bai, hura gurea zen».

Lehen egunetan euri asko izan zutela, baina, Patagonian ez bezala, segidan beste hiru eguneko ostarteak zabaltzen zirela azaldu dute. Gutierrezek eta Izagirrek sokaldi bat osatu zuten, eta Elolak eta Ulaziak bestea. «Txandaka antolatzen ginen luzeak zabaltzeko: egun batean sokaldi bat, hurrena bestea. Egunean bi luze zabaltzen genituen». Hala, 500 metro soka finkatu zituzten, hormaren erdiraino. Hor, horma etzan egiten da, eta handik gora errazago egiteko ustean, ez zuten soka gehiago finkatu. Gailurreko lehen saioa zaparrada itzelak ito zuen eta beheraino jaitsi ziren.

Bigarren saioan, bai, azken 400 metroak erreskan zabaldu zituzten. Urtezahar egunean, 20:00etan, atera ziren gailurrera, Euskal Herrian gauerdia zenean. Eta hain gau berezian, eurak bezala etxetik kanpo zeuden beste askorekin gogoratu ziren bideari izena ematerako orduan: *Dispersiorik ez*. Ezaugarriak: 900 m/ 6b/A2+. Bide bat zabaldu dute horman, baina oihan ezezagun hartara zabaldutako bidea garrantzitsuagoa izango da gerora begira.



Ezusteko laguna gailurrera iristean

✘ Laurak bakarrik aritu dira horman, baina traste guztiekin eta egun batzuetako bizarrarekin gailurrera atera ziren egunean, hara, ezustekoa: neska brasildar bat. Ez, ez da broma. Neska eta haren mutil-laguna —Brasilgo eskalatzaile onenetako bat— bide bat aztertzer joanak ziren Cochamora, eta Urtezahar gaua gailurrean igarotzer atera zen neska. Oinez, atzealdetik. Ez dira laukotearen lagun bakarrik izan. Cochamora itzultzean, Tato eta Andi, Benasquen lagun egindakoak, etorri zitzaizkien Barilocheetik bila (7 ordu autoz), eta, ondoren, buelta, seirak batera. Elkarrekin 10 egun ibili dira eskalatzen eskolaz eskola. Bereziki gomendagarria El Freykoa.